



UDAL INFORMAZIOA 2022KO ABUZTUA

ESKOLAKO FATXADA

Zuetako aunitzek ikusi izanen duzuen bezala, uda honetan eskolako fatxada pintatzen ari dira. Lanek 39.325€ko aurrekontua dute. Berako SHOTA enpresa ari da horretan eta irailaren 5erako bukatua egon beharko du. Pintatze lanak egiteko %70eko laguntza hartu du udalak.



KLIMA ETA ENERGIA JASANGARRIRAKO PLANA

Klima eta Energia Jasangarrirako Plana (KEJEP) onartu du udalak. Eta hala, horren parte diren udalek ondoko jarduera hauetan esku hartzeko konpromisoa hartu dute:

- Ekintza klimatikoa administratibotik
- Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarria
- Mugikortasun iraunkorra eta zero emisio
- Klima aldaketari egokitutako hirigintza
- Hondakinak prebenitzea eta kudeatzea eta ekonomia zirkularra bultzatzea
- Ingurune naturala, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza
- Uraren kudeaketa integrala
- Klima aldaketarekin lotutako gaixotasunak eta osasunaren gaineko ondorioak prebenitzea

Plan horri atxikimendua adieraztearekin batera, udalak bere kexa azaldu nahi du Landonoko zentralaren ustiapena dela eta. Udalaren ustez, ustiapen hori energia berriztagarria izaki, plan horretan adierazten diren ildoak beteko lituzke. Beraz, udalak ez du ulertzen Kantauriko Ur Konfederazioak hartu duen erabakia. Azken honek 2021ean Arantzako udalerrian zegoen azkeneko zentral hidroelektrikoa itxiarazi zuen, presa eraisteko esperoan egonda.

2021EKO ABENDUKO EURITEEN KALTEAK

Oroituko zareten bezala, 2021eko abenduko euriteek kalteak eragin zituzten hainbat bazterretan, baita gure herrian ere. Horren harira, Basartea enpresaren bidez, udalak kalteak identifikatu eta baloratu ditu. Egindako proiektuak dagozkien departamentuetan aurkeztu ditu eta udalak duen informazioaren arabera, urte akabailan ebatziko dute zenbateko diru laguntza emanen duten kalte horiek konpontzeko.

ELIKADURA DINAMIZATZAILEA

Azken hilabeteotan, tokiko elikadura sistemaren inguruko ikerketa batzuetan parte hartu du udalak. Bertzeak bertze, elikadura sistemaren diagnosia egin dute. Orain, berriz, Bortzirietako eta Malerrekako udal gehienekin batera, elikadura dinamizatzailea kontratatze bidea ireki da. Dinamizatzaile horren helburu nagusia, lehenbiziko sektoreari bultzada emanez gure baserriarrei laguntzeko aholkuak ematea izanen da. Horri lotuta, aurtengo bestetako herri bazkaria ahal den heinean bertako produktuekin osatzea erabaki du udalak.



GOIKO KARRIKAKO TRAFIKOIA UDAN

Aurten ere, udako asteburuetan Goiko Karrikako trafikoa arindu nahi du udalak. Hortaz, Osiña aldetik heldu denean, Goienburutik egin beharko da ibilbidea.




DIRU LAGUNTZAK

Dirulaguntzak emateko aurreikusia zuen mila euroko partida bi proiekturen artean banatu du udalak. Alde batetik, Irungo Harrera Sareari 500€ko laguntza ematea erabaki du, talde horrek beharreen dauden migratzaileei laguntzeko egiten duen lanagatik (osasun arreta, jatekoa, arropa, garbitasuna...). Bertzetik, herriko neska eta mutil gazteek sortu duten herri kirol taldeari bertze 500€ko laguntza emanen zaie bertako kirola, berdintasuna, etab. sustatzen dituelako.

ONGI PASA BESTAK!

Aurtengo bestak gainean ditugu! Abuztuaren 12tik 15era izanen dira eta herriko talde eta eragileekin elkarlanean, haur, gazte eta helduetan pentsatuz ahalik eta egitarau osatuena antolatzen saiatu da udala. Arrazoi batengatik edo berzteengatik herrian ez daudenak ere gogoan izan nahi ditugu.

DENOK ELKARREKIN ETA ELKAR ERRESPETATUZ ONGI PASA BESTAK!



ETA ZUK ZER DIOZU?

Idatzi hemen zure kezkak eta proposamenak eta esku zabalik hartuko ditugu Arantzako Herriko Etxean.
